

berriak

Triforio

-tik



araba
álava

Gasteiz Adriano VI.aren garaian

Santa Maria Katedrala Fundazioak, Gasteizko Teologia Fakultatearekin eta Euskalerriaren Adiskideen Elkartarekin lankidetzan, Adriano VI.a Aita Santuaren izendapenaren 500. urteurreneko ospakizunekin bat egin nahi izan du –protagonistak Arabako hiriburuan bizi zen bitartean izan zuen bere izendapenaren berri–, urte osoan zehar gauzatuko den Hitzaldi Zikloaren antolaketarekin.

Adrianus VI Pontifex 1522-2022 da urte osoan zehar XVI. mende hasierako Gasteizko pertsonen eta gizartearen historian sakonduko duen ekimenaren izenburua, Adriano Utrechekoak Gasteizko Kordoi Etxean zegoela Aita Santu izendapenaren berri jaso zuen unea erreferentziatzat hartuta.

Ekitaldiaren hiru antolatzaile nagusiak, Santa Maria Katedrala Fundazioak, Gasteizko Teologia Fakultateak eta Euskalerriaren Adiskideen Elkartek, batera prestatu dute programa, Gasteizko Udalaren eta Vital Fundazioaren laguntzarekin. Gaine-

ra, Gasteizko Gotzaindegiak eta Arabako Foru Aldundiak ere lagunduko dute.

Guztira, dagozkien gaietako aditu eza-gunek emango dituzten sei hitzaldi izango dira, etapa historiko horretako funtsezko alderdiak hobeto ezagutze-ko aukera emango dutenak, hala nola hiriaren konfigurazioa, Gasteizko gizartearen ohiturak, artea, pentsamendua, Adriano VI.aren erlijio-proiektzioa edo Erreformaren eragina. Hitzaldi guztiak, bat izan ezik –Vital Fundazioan izango da–, Europa Biltzar Jaurerian izango dira eta 19:30ean hasiko dira. Sarrera doakoa izango da.



Hitzaldiak

ATZERATUTA Vitoria-Gasteiz 1522an. Adriano VI.ak ezagutu zuen hiria.

- Apirilak 20. Adriano VI.a eta bere garaiko Gasteizko gizartea.
- Maiatzak 18. Adriano VI.a. Irudiak eta isiluneak.
- Urriak 26. Humanismoa Adriano VI.aren garaian.
- Azaroak 23. Adriano VI.a Pontifex Maximus.
- Abenduak 21. Adriano VI.a eta Erreforma.

Adriano VI.ak ezagutu zuen hiria

Ismael García arkeologo eta EHU/UPVko Erdi Aroko Historiako doktoreak ireki behar zuen zikloa martxoaren 23an, "Vitoria-Gasteiz 1522an. Adriano VI.ak ezagutu zuen hiria" hitzaldiarekin, baina arrazoi pertsonalengatik, ponentzia atzeratu egin behar izan da. Noiz egingo den laster iragarriko da. Ismaelek azaltzen duen bezala, "Adriano VI.a gure hirian egon zen 1522. urtean, Gasteiz eraldaketa betean zegoen. Pixkanaka, Erdi Aroko hiribildu zaharrean itxura errenazentistako eraikin berriak sortzen ari ziren, kaleak harritatu egiten ziren, tenpluak eta komentuak kapera berriei handitu eta jau-regi berriak sortzen hasi ziren. Hitzaldi honetan, aita santu berriaren larruan jartzen saiatuko gara, eta haren begietatik begiratzen Gasteizko egunsenti arkitektoniko eta urbanistiko berriari".





“El Libro Negro de las Horas” liburuaren aurkezpena

“El silencio de la Ciudad Blanca” trilogian Unai López de Ayala inspektorearen –“Kraken”– fikziozko abenturetako batzuen agertoki izan den Santa Maria katedralak, Eva García Sáenz de Urturik

sortutako sagaren laugarren liburuaren aurkezpena hartu zuen. Idazleak aleak sinatu eta zenbait une partekatu zituen erdiko nabearen edukiera bete zuten 200 pertsona ingururekin.

Puerto Ricoko oihartzunak

Joan den otsailaren 24an San Juan hiriak (Puerto Rico) antolatutako jardunaldi telematikoko bat egin zen San Jose eliza zaharberritzeko prozesua aztertzeko. Prozesu horretan Santa Maria Katedrala Fundazioak hartu zuen parte lankidetzaz hitzarmen baten bidez. Leandro Camara, gangaren egitura errefortzuaren diseinatzailea, “Kupula gotiko nagusiaren konponketaz eta indartzeaz” mintzatu zen.




Familia-turismoari buruzko jardunaldia

Otsailaren 17an, Villa Lucia izeneko Guardiako gastronomia-gunean, Euskadiko 4. Familia Turismoko Mahaia egin zen. Bertan, Katedraleko bisita gidatuen programak ere hartu zuen parte, familiei zuzendutako kultur ondarea zabaltzeko

jarduera gisa. Bi urteko bilera birtualen ondoren, oraingo honetan topaketa aurrez aurrekoa izan zen, eta bertaratutakoek 2021eko balantzea egin ahal izan zuten, baita 2022rako aurreikuspen onak egiaztatu ere.

“At Vitoria” eleberraren egileak katedrala bisitatu du

Marcia Riman Selz idazle estatubatuarrek, bere “At Vitoria” eleberriko pasarte batzuen agertokia den Santa Maria Katedrala bisitatu zuen joan den hilean. Lan horretan, Riman Selzek XV. mendean, Errege Katolikoak kanporatzeko ediktuen ondoren, komunitate juduko zenbait kidek Arabako hiriburuan izandako gorabeherak kontatzen ditu.



Fundazioa, Euskaraldia-ekin.

Santa Maria Katedrala Fundazioa izan zen, erakundeekin eta euskararen munduarekin batera ekimenaren argazki ofiziala egiteko Foruen plazan bildu ziren Gasteizko gizarte berrogeita hamar erakunde adierazgarrietako bat.